

*ALA, NAIZ, EDO.*—Itzoi eliztilariak *batzalle berezle* (coniunctio disiunctiva) izena ezarten dautsoe, eta euskal idazleen lanak irakurri-ala dakustanez, euskerazko itzok ondo ta utsik egiteke darabillezanak gitxi be gitxi diranazkero, itzotatik zein noz erabili bear dan edonok yakin dagian arau batzuk emen emotea otu yat. Egia esateko, euskal elizti arlo au euskeraz ama euskaldunen altzoan ikasi eztauenarentzako zailenatariko yatzu izan be.

Euskal elizti gitxi irakurria nozue eta eztakit gure eliztilariak arlo au yorratu dabenez. Nire euskerea etxean ikasia da, ez eliztietan.

Latera edo Latin izkuntzan gure ALA'ren egikizunerako AN itza darabile, NAIZ'enerako, VEL aurreratia, naiz VE atzeratia; eta EDO'ren egikizunerako, AUT.

Lateraz ondo dakienak errezago yabetuko dira, gure iru itzotatik zein noz erabili bear dan; oar zadiz orraitio, irakurle, euskeraz euskal idazle guztiak yator idazten eztaben legetxe, lateraz idazten dabenez guztiak be eztabela ondo ta zeatz eta yator idazten. Latera idazle yatorrakana yo bear dogu latera idazkera yatorrik ikusteko ta ikasteko.

Baita oar zadiz, gure AXULAR'ek eztarabilela NAIZ bein be; eztakit ak zegaitik eztarabilen. Ez ete darabile eguzki aldeko gure anaiak itz ori besteok darabilgun egikizunerako?

Goazan orain arauetara.

*ALA.*—Itz au erabili bear dozu *espairik, zalantzarik* dozunean; baita itantzen dozunean be; izan be, zalantzan, ezpaian ezpa'zengoz, etzenduke itanduko.

Esaterako: “eztakit an aitz-ganean abarotan dagona asto ala beor dan”  
“asto ala beor ete da an aitz-ganean abarotan dagona?”

ALA egikizun orrez bestetan eztogu erabili bear, euskaldun yatorrak orretarakoxe bakarrik erabilten dabe-ta. Orretarakoxe ta orretarakoxe bakarrik erabilten dabe Latera idazleak be euren AN.

\* \* \*

NAIZ.—Itz au NAI itzetik dator, Latera'ko VEL eta VE be VELLE'tik datozanez; au dala-ta, naiak, naimenak, autapenak oraindik lekurik daben esakeretan erabili bear dogu itz au, eta olantxe erabilten dabe edo erabili eben oraingo euskaldunak baño yatorrago itz egiten eben gure aurrekoak.

Noz eta non dau naiak egitekorik? Yazo *dateken, leiteken, eta edikenean*, ez bestetan; yazo *ba'da, yazoten ba'daragoio*, naiz *yazoko ba'da*, edo yazota dago ta aldaezina da, edo yazoten ba'daragoio, naiz *yazoko ba'da*, erabagia arturik dago ta naimenak eztau or bere eskua sartzerik.

Esaterako: "Aita naiz semea etorri dateke".

"Aita naiz semea etorri ledike".

"Aita naiz semea etorri edikean (eitekean)".

"Aita naiz semea betor".

"Aita naiz semea, naiz biak letorkez". eta abar.

Baña ezin esan: "Aita naiz semea etorri zan".

"Aita naiz semea etorri da".

"Aita naiz semea dator".

"Aita naiz semea etorriko da".

Zegaitik ez? Yazokunok edo yazoak, edo erabagiak diralako, autakizun eztiralako.

Asko dira NAIZ'en ordeztan NAI darabilenak euskaldun yatorren artean be. Zein obeto? Eztakit ba, baño ni neu NAIZ'en alderago nago.

\* \* \*

EDO.—Noz erabilteko itz au? Argi dago arazo au, ezer egotekotan: ez ALA, ez NAIZ erabili bear eztanean erabili bear da EDO.

Irurotatik berez-indarrik gitxien dauena EDO da.

Arauok aurrean eta gogotan doguzala, errez ikusiko dogu urrengo esakerak, an-or-emenka gure aldizkarietan idoroak, oker idatzita dagozala:

1) "Gure kondaira-une au illunabar edo egunsenti den guk erabaki genezake". Agiri agirian *edo* ori berenean bagarik, *ala*'renean dago,

orretarako baimen bagarik. Eta uts ori egin dauena ezta edozetariko idazle, onenatariko baño.

2) "Lurrean euri-mirailik edo kale-zikinkeriarik ez dut ikusten". Esakera onek edozein euskaldun yatorrentzat esan gura dauena auxe da: Lurrean euri-mirailik, naiz bardintsu dana, kale-zikinkeriarik ez dut ikusten. Izan be, olango esakeretan *edo*'ren bitartez berezten diran itzak otsez bi, baña esanguraz bat dirala iragarten dau euskaldun yatorrak, eta nik eztot uste esakera ori idatzi dauenak olangorik esan gura izan dauenik. NAIZ bear zan or.

3) "Demokraziak sortu du edo lezake mistika bat". Esakera auxe euskal usain gitxiko dogu; bestelan legoke onetara: Demokraziak sortu dau naiz sortu lezake mistikarik.

4) "Gizartean bere ideiak zabaldu ta ezarri nai ez dituen gizonttoa, itxasertzeko zaborreriaren antzera, beronek erabilliko dau altzoan ara ta ona. Morroi edo errege". Esakera au okertzat etsi baño len eta nigan ifiontzako gogo txarrik eztagola iragarteko, aurreztik esan bear dot esakera au bitara artu leitekela: 1) gizadiak olango gizona, morroi naiz errege dalarik, ara-onaka erabilliko dau. Au esan gura ba'dau idazleak, esakera orretan EDO'ren orde z NAIZ bear litzake. 2) Gizartean bere ideiak zabaldu ta ezarri dagizan gizona errege izango da; zabaldu ta ezarri eztagizan gizontxoa, ostera, morroi. Eztago besterik izaterik. Errege edo morroi. Au ba'da idazleak esan gura izan dauena, ondo idatzita dago *edo* aldetik bere esakerea.

5) "Gizadi erdia komunismopetik gorde edo askatu nai ba'dugu *elite*-gazteari elburu zoragarri bat zor zaio".

Esakera au oker be oker dago, bai *edo*'ren aldetik, bai ostean be. Onetara legoke askoz be euskera yatorragoz: "Gizadi erdia komunismopetik gorde naiz askatu nai ba'dugu, gazte-*elite*ari elburu zoragarriren bat zor zaio". Gorde edo askatu esanaz naiz idatziaz *gorde*'k eta *askatu*'k zer bat esan gura dabela iragarten da eta ezkagoz orretan, bat bagarik zer bi dira-ta.

Or, bai aldizkarietan eta bai idaztietan, agiri diran gai oneri dagozozan esakera oker guztiak emen imini ta aztertu bear ba'neuz, nire bizian be eneunke amaituko nire arloa. Bego, ba.

\* \* \*

GIZON ONENA, ALA GIZONIK ONENA?—Zerbaitetik geien naiz gitxien esan gura dauen izen-lagunaren aurrean doan izenari *-ik* atzizkia ezarri bear dautso, euskera barririk asmau gura ezpa'dau, eta beti ezarri be gero. Ez bein bai eta bein ez. Orrazkero, "Gizon onena" ta olangorik ezta idatzi bear, "gizonik onena" baño.

Gizonok, gitxi-asko, susmakor gara-ta, ba-leiteke norbaitek ni onetan oker nagolaren susmorik izatea. Ez ba, enago onetan oker, itandu ezpabe euskera yatorrez itz egiten daben euskaldunei, itandu, idazle zarzale ba'zara, gure Axular'eri be.

\* \* \*

BAT.—Beste okerrik be ba-dogu gure euskal-idazleen artean, eta zori oneko BAT dogu ainbat eta ainbat idazlek oker eta sarritan darabilena. Idazle batzún idazlanak iguin emoten dabe BAT au bear eztala erabilten dabelako. Gure auzoko izkuntzak dira oker onen errudun; gure auzoko izkuntzén otseinegi, bendekoegi dira euskal-idazle asko ta asko. Euskera yatorrez BAT zenbatzeko itza da, ez ingelandarrak “indefinite article” deitzen dabenaren ordeko. Orre-gaitik BAT bear bearreko danean eta besterik ezinean bakarrik erabili bear dogu, euskaldun yatorrai yarrai. BAT au eguzki aldeko euskaldunen artean agiri da geien; auzoko izkuntzak onetan aik gu baño lenago benderatu dauz, zori txarrez.

Esakera oker batzuk:

1) “Presupuesto bat izaten du urtero Diputazioak bere Principe de Vianarentzat”. Onetara litzake esakera au euskera yatorragozko: “Presupuestoa izaten du urtero Diputazioak...”, naiz “Presupuestorik izaten du...”.

2) “Agerre jaunaren itzaurrea eta euskal-ipuín sorta batekin”. Obeto legoke onan: “Agerre jaunaren... euskal-ipuín sortakin”.

3) “Orixe da gaurkoz nere ustez goi-maillako aldizkari baten eredua”. Erdal-usaina darion esakera au askoz be obeto legoke onan: “Orixe da... aldizkariren eredua”.

Esakerok idatzi dauzan idazlea, utsok alde, idazle bikain eta gozo yatzu, baña onango utsik egingo ezpa'leu askozaz be bikainago ta gozoago litzake.

4) “Eta ez da izugarrikeri bat nik orain eskatzen dautzutana”.

Erdal-kiratsa dogu emen be, eta surrak itxiazoterañokoa izan be. Esakera au ez ete legoke askoz be euskerazago onan? “Eta ez da izugarrikeririk nik orain eskatzen dautzutana”.

5) “Eztugu beraz ukatuko eskuarazko zinema bat, oraikotz, nekez sortarazten ahal dela”. Au be sunda txarreko esakerea dogu. Askoz euskerazkoago litzake onan: “Eztugu beraz ukatuko eskuarazko zinemarik, oraikotz...”

\* \* \*

AITAZ BESTERIK EZTA ETORRI=Aita etorri da, baña besterik ez.  
AITAZ BESTEAK ETORRI DIRA=Aita ezta etorri, besteak bai.

Esakerok eta onein antzekorik sarritan entzungo dozuz euskaldun yatorren agotik eta Axular'en idaztian be onangoxe esakerak idoroko dozuz, arduraz irakurri ba'dagizu, baña, zori txarrez, oraingo idazlerik geienak goiko esakerok onan idazten dabez:

Aita besterik ezta etorri  
Aita ez, besteak etorri dira.

Ikusi or nonbaiten irakurritako esakera oker au:

“Eriotzera irixteko bide berri bat agertu besterik ez degula egin norbaitek esan du”. Esakera au ondo merro ta mengel yaio da, eta luzaro biziterik onango umeri iñok ezin opa: edozein euskaldun yatorrek onetaratsu idatziko leuke: “Eriotzera irixteko bide berririk ediren edo idoroaz besterik ez dugula egin norbaitek esan du”.

Anitzek darabille Axular agotan aren mordollokeriren bat edo beste euren alde ekarteko, baña aren pitxiak baztatu ta or izten dabez, zaborra naiz sats bailiran, eta ori okerreko bidea artzea da.

Amen Axular'en pitxietarik bat: “Bere senarraz bertzerekin egitekorik izan etzuen emazte baten garnuaz eta ur-isuriaz garbitu bear zituela bere begiak”=Bere senarrakin bai, bertzerekin ez.

Amen aren pitxietatik gure arira datorren beste bat be: “Bere senarraz bertzerik ere dastatu baitzuen”=Bere senarre dastatu baitzuen, eta bai bertzerik ere.

Eutsi, irakurle, beste bat be: “Bere senarraz bertzerekin izan zela faltzoki akusaturik”=Bere senarrakin ez, bertzerekin izan zela faltzoki akusaturik.

Eta, azkenez, auxe be: “Hartzaz bertze guztiek enplegatzen baitute bere denbora”=Hark ez, baña bai bertze guztiek enplegatzen baitute bere denbora.

Gagokiezan esakera biok nik neure etxean eta auzoan ikasi nebazan nire umearoan eta bestera idatzita ikusteak artegatu ta mindu egiten izan nau beti. Orretan nengoalarik, Axular zarrak gai onetaz zer diñoan ikusi bear dodala otu yatan. Nire poza etzan izan txikia Axular nire alde degola ikusi nebanean.

\* \* \*

Gaurkoz euskal-elizti gairik asko arakatu ta aztertu dogu. Urren-  
goan geiago orretarako astirik eta osasunik ba'dogu. Euskal idazleok  
dakiguntxoak alkarri irakatsi-bearrean gagoz, eta egiteko au alkar  
mindu bagarik egin bear dogu gure euskerearen onerako, ez geure  
burua erakuste-arren. Astirik eztozu galdu bear alkarri arrika, eus-  
kerea len baño len gorengo tontorreraño eragiten aleginak eta lerre-  
nak egin baño. Dakianak eztakianari biotzik onenez eta maitasunez  
irakatsi dagiola. Au da beintzat nire asmoa lerrook idazten daragoio-  
danean. Agur, irakurle, urrengorarte, Yaungoikoa lagun.

LARRAKOETXEA'TAR BEDITA.

Salta'tik 1961/XII/30'gnean.

# EGĀN



1-3

1963

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País  
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa